

TTUN-TTUN HOTSAK HERRI MUSIKAREN TXOKOAN

Ttun-ttuneroek, edo txistulariek nahiago izanez gero, leku garrantzitsua dute gure herri musikan zalantzarik gabe. Hori dela eta, ezin dugu egon HM Txoko honetan maiz samar haiengana ere begiratu zuzendu gabe. Aurten bi txandatan egin dugu hori bereziki: batetik, eta nagusiki, datorren azarorako Euskal Herriko Txistulari Elkartearekin batean antolatzen hasiak garen Herri Musikari buruzko 4. Jardunaldietan, gai nagusitzat danbolinteroak izango dituztenak, eta bestetik joan den apiril-maiatzean Hernaniko txistulariek antolatu zuten Txistulari Jaialdian ahal genuen neurrian lagunduz.

2002. urtean Herri Musikaren 1. Jardunaldiak burutu genituen bezala, geroztik, urtez-urte, erakunde ezberdinekin lankidetzan, herri-musikaren inguruko gai ezberdinak jorratuz gatoz. Honela joan dira bertsozaren ingurukoak (Euskal Herriko Bertsozale Elkartearekin) eta dantzaren ingurukoak (Euskal Dantzarien Biltzararekin eta Ikastolen Federazioarekin). Aurten, esan dugun bezala, Euskal Herriko Txistulari Elkarteari eskatu diogu

aurrera dezakegu orain arteko Jardunaldiek izan duten formato beretsua izango dutela 4. Jardunaldiok ere: azaroren 26 eta 27an ospatuko dira, larunbatean goizez alderdi teorikoari lehentasuna emango zaiolarik (hizlarien txostenak) eta arratsaldean berriz mahai-inguruan burutuko den eztabaidari txistu-danbolinak jotzeko estilo ezberdinak bilduko dituen ikuskizunak emango diolarik jarraipena. Igandean berriz, ohi dugunez, goizean tailer

Musika Eskolakoak eta Udalekoak) eta Euskal Herriko Txistulari Elkarteari lagunduz. Jaialdi hartan ekitaldi nagusia Antonio Insausti "Txobito" I. Txistulari Gazteen Txapelketa izan zen, 9-16 urte bitarteko 45 bat txistulari gazte eta ikusmin aipagarria bildu zituen, parte-hartzaileek oso maila ona erakutsiaz orohar. Gazteenen kategorian Jon Ansorena hemaniarra eta Julen Baleztena beratarra izan ziren txapelketa hurrenez-hurren, nagusienean berriz Iñaki Palacios gasteiztarra eta Peio Irigoien irundarra, eta taldeenean Donostiakoek irabazi zuten I. Ansorenaren "Birigarroa" joz, Irungoek lortu zutelarik bigarren saria; baina esaten ari ginenez, sarrituz gain, aipagarriena gainerakoek ere egin zuten lana eta erakutsi zuten maila izan zen.



Txistulari Taldeen Alardea Hernanin

gurekin bidelagun izateko. Asmoa, ikuspegi ezberdinetatik danbolinteroan iragana, oraina eta etorkizunari begiratutxo bat egitea da, horretarako Jardunaldi hauek eztabaidarako eta esperientziak ezagutzeko nahiz elkartrukatzeko eskaintzen duten plaza baliatuz. Egitaraua azaltzeko oraindik goitxo bada ere (lan horretan ari gara eta),

praktikoak burutuko dira, eta arratsaldean erromeria izango da, festa giroan Jardunaldiak osatzeko.

Bestalde, haseran esan dugun eran, Hernanin apirilaren 30 eta maiatzaren 1ean ospatu zen Txistulari Jaialdian ere lankide izan zen HM Txokoa, Jaialdia antolatu zuten Hernaniko txistulariei (Hernani

Jaialdia ez zen ordea txapelketara mugatu, eta maiatzaren 1ean ospatu zen Txistulari Taldeen Alardeak ere emaitza berezia izan zuen, batez ere estilo ezberdinetako txistulari taldeak bildu zirelako, denak ere lana oso txukun bete zutenak goizeko dianan nola kolorez betetako eguerdiko kontzertuan ere. Bertan izan ziren Berziztu Txistulari Taldea Durangotik, Ardatza Txistulari Taldea Iruña ingurutik, Urretxuko Txistulariak eta Hernanikoak bertakoak, hala nola bezperan txapela lortu zuten gaztetxoak. Bazkal ondoren giro aparta jarri zuten gainera Hernaniko kaleetan txistulariek eta haien inguruan bildu ziren dantzazale nekazinek.

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udako kontzertua

2005ko uztailaren 2an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

JUAN ARRIOLA eta JUANJO OTXANDORENA

Euskal herri musika "biolinatzen"



JUAN ARRIOLA: Biolina
JUANJO OTXANDORENA: Bouzoukia

XX. mende hasieran gure herri musikatik desagertu bazen ere, dokumentu zaharretan garbi agertzen da euskal herri musikan biolina oso erabilia izan dela. Gaur egun, badira gure artean herri musika jotzen duten biolin jole gazteak eta horietako bat Juan Arriola dugu. Bera Mendaroko Artañola baserrian jaio zen 1959.an. Ingenieritza ikasten ari zela biolina oparitu zioten eta bere kasa hasi zen hura ikasten. Cordoban soldauzkan ari zela, zeltiar musika jotzen zuen bertako San Barandan taldea ezagutu zuen eta berehala haren partaidea bihurtu zen, ia astebururo beraiekin jotzen zuelarik. Euskal Herrira bueltatu zenean Donostian hasi zen lanean eta bertako Kontserbatorioan egin zituen biolin ikasketak. Kontserbatorioko Orkestra Sinfonikoan ere sei urtez aritu zen, nazioarteko zenbait lehia-

ketetan parte hartuz. Bere irakasleak Ana Maria Sebastian, Dimitri Voutchkov eta Cristian Ifrin izan dira besteen artean. Ganbera erreperatorioko kontzertuak ere eman ditu, Karmele Prat eta Aintzane Basterretxea piano joleekin batera. Gaur egun biolina erakusten du Deba eta Mutrikuko Musika Eskoletan.

Guzti honek adierazten duen formakuntza akademikoaz gain Juan Arriolak beti izan du herri musikarekiko zaletasuna. Bera izan da Alboka euskal musika taldearen biolin jolea azken urteotan eta talde horrekin bi disko grabatu ditu: "Bi beso lur" (1998) eta "Lorios" (2001) beste disko batzuetarako kolaborazioak ere egin dituelarik.

Beraz, ondo ezagutzen du gure herri musika eta kontuan hartzekoa da gure doinu

zahar horiek jotzerakoan ematen duen joera berezi eta aberatsa. Bestalde, musika egile emankorra dugu eta Alboka taldearen diskoetan grabaturik dauden eta momentuz ineditoak diren biolin-rako doinu berri asko sortu ditu. Horien artean gehienak gure herri dantza erritmoak dira. Horregatik esan dezakegu Juan Arriola herri musika mantenduz gain, herri musika sortzen duen horietako musikaria dela.

Emanaldi honetarako Juanjo Otxandorena Hernaniko musikariaren laguntza edukiko du. Urte asko egin dute biek elkar jotzen eta oso bikote ona osatzen dute. Saio honetarako erreperitorio zabala, bariatua, doinu zahar eta herri moldeetan egindako berriak entzungo ditugu.

Txori-Etxeberritarrak

Arnoate-Otazelai

Arku Dantza

Txinparta

Partitzeko Tenorea-Errege Jan Lisorla-Xoxote

Solozahar (Fandangoa-Alboka)

Otaerre (Arin-Arin G minorrean)

Mendaro

Altsasu

-Azkaindarrak

Burdinola (Arin-Arin D menorrean)

Ezpatadantzak

Ezpartañola

udako kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatuko dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 12 euro.

GALANDUM GALUNDAINA

(Portugal)



Galandum Galundaina
Mirandako Musika
Tradizionaleko taldea eta izen bereko Elkarte Kulturala 1996. urtean jaio ziren, Terras de Mirandako ondare musikala, dantzak eta hizkuntza jasotzeko, ikertu eta ezagutarazteko asmoz.

Taldeak lehenagoko musikarien belaunaldia gazteago den belaunaldiarekin lotzen du eta horrela, urteetan galtzeko arriskuan egon den tradizio musical aberatsaren ja-rraipena ziurtatzen du.

Taldeakideak Terras de Mirandan (Fonte de Aldeia eta Sendim) jaio eta hazi dira. Bertan, zuzenean ezagutu dute jotzen duten musika, senitarteko giroan, edo

gaita-joleekiko harremanen bitartez. Gainera taldekide guztiek izan dute musika arloko heziketa akademikoa. Erabiltzen dituzten soinu-tresnak, oso aspaldikoak diren beste batzuen kopiak dira, haien itxura eta sonoridadea mantendu dituztelarik.

Jaso dituzten doinuak diskoetan grabatu dituzte: "Modas i Anzonas" eta "L Purmeiro". Oso garrantzitsua dira, bestalde "Grupo Folclórico Mirandés de Duas Igrejas" edo "Grupo de Cantares de Sendim" bezalako taldeekin egindako lanak (adibidez "Modas de Duas Ëgreijas" eta "L'alma"

diskoak)

Talde bezala ere beraien ardura izan da ekitaldi oso garrantzizkoen antolaketa, Fonte de Aldeiaiko REZOSaren kasua edo sendimeko Lehenbiziko Jailadi Interzeltikoarena batzuk aipatzeagatik.

Aipatzekoa da talde honen gaitasuna giro ezberdinetan murgiltzeko: eskenatokietan (Expo Lisboa 98, Sete Sóis Sete Luas da Madeira jaialdia, Oporto, Sendim, Segovia, Salamanca edo Calahorrako Folk Jaialdiak,..) edo kale animazioa.

Galandum Galundainaren partaideak hauexek dira:

Paulo Preto (voz, gaita de foles mirandesa, sanfona, flauta pastoril e tamboril)

Paulo Meirinhos (voz, bombo, gaita de foles galega, percussões tradicionais)

Manuel Meirinhos (voz, percussões tradicionais, flauta pastoril e tamboril)

Alexandre Meirinhos (voz, caixa de guerra e percussões tradicionais)

kontzertu honen laguntzaileak:



OIARTZUNGO HERRI MUSIKA ESKOLAREN EGUNA

2005ko Ekainaren 19-an eguerdiko 12-tan kontsejupian.

Herri Musikaren Txokoak bideratzen duen Herri Musika Eskolak dagoeneko 4. urtea du, honengatik aurtengoan ikastaro bukaerarako Herri Musika Eskolaren Eguna antolatzea erabaki dugu. Bertan gure eskolako dultzina, alboka eta txalapartako ikasle eta irakasleek hartuko dute parte, beste musikari batzuen laguntzarekin. Kontzertua eguerdiko 12-tan izango da kontsejupian (San Esteban enparantza) eta ondoren eguerdiko 2-tan bazkaria Lartaun elkartearen. Kontzertuko egitaraua:

TXALAPARTA:

-3 joaldi

ALBOKA:

- Albokarien jotia. (Fandangoa)
- Josetxuk hilko dau. (Arin-arin)
- Fandango Guipúzcoa. (Fandangoa)
- Bueltea. (Arin-arin)

DULTZAINA:

- Leizakoa. (Fandangoa)
- Agirretxe. (Arin-arin)

TXALAPARTA-ALBOKA-PANDEROA:

- Mutil txaleko gorri. (Fandangoa)
- Iurretakoa. (Arin-arin)

DULTZAINA-TRIKITIXA:

- Saltzen-saltzen. (Baltsa)

TXALAPARTA-ALBOKA-TRIKITIXA-PANDEROA:

- Igorreko jota. (Fandangoa)

TXALAPARTA-ALBOKA-TRIKITIXA-DULTZAINA-PANDERO:

- Montterren Fandangoa
- Ekaitza. (Martxa)

TXALAPARTA FESTA

BISITARI KOPURUA

Apirila: bisitari kopurua: 506

Antolatutako taldeak: 22

Maiatza: bisitari kopurua: 456

Antolatutako taldeak: 21

Bisitari kopurua ekainera arte: 9.901



Herri Musika Eskolako klase bat

UDABERRIKO KONTZERTU ARRAKASTATSUA

Beherago argazkietan Herri Musikaren Txokoan antolatutako azken kontzertuko bi irudi ikus ditzakezue: Bertan Faltzezko joteroak alde batetik eta Asturiasko zanfoña eta gaita joleak.



HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org



oiartzungo
udala